

Pandemiak gizarte osoan izan du eragina, baina ondorioen larritasuna ez da berdina izan denentzat. Bizipoza elkarteak, besteak beste, elbarritasunen bat edo gaitzen bat duten umeen familien elkarteak batzen ditu, eta haien bizipenak bildu ditu: ondorioztatu dute ez dutela baliabide aski izan.

Birusak zama handitu die

Maria Ortega Zubiate

Pandemiak harri astuna jarri du gizartearen sordaldien gainean; guztien hankak sartu ditu lokatzen. Baina batzuei presio handiagoa eragin die, gehiago lokatzen ditu: aurretiaz, izurriaren pisurik gabe ere, egoera zailean baitzeuden. Hori ondorioztatu du Bizipoza elkarteak elbarritasunen bat edo osasun arazoren bat duten seme-alaben familiekin izurriaren ondorioez egindako ikerlan batean. Peio Manterola da ikerketaren egileetako bat: «Aniztasun funtzionala dutenei dagokienez, zailtasunak lehenago ere bazeuden, pandemiak handitu besterik ez ditu egin. Ez da balibiderik egon sortu diren beharrak asetzeko».

Horixe da galdekatutako 80 familia baino gehiagok eman dituzten erantzunetatik ateratako ondorio nagusia. Bizipozak 36 elkarte batzen ditu, elbarritasunak eta osasun arazoak dituzten ume eta nerabeenak horietako asko, eta konfinamendu garaian familia horiek beren larriaren bitartekoak bildu dituzte ikerketan. Ikusi dute jada malkartsua zen bidea zaildu duela pandemiak, eta gabezia ugari izan direla, esparru askotan. Agerikoena osasungintzarena izan liteke: jakina da ospitaleek gabezia gabezia gabezia «beharrezkoak» edo «larriak» ez ziren bestelako osasun zerbitzuak atzeratu edo bertan behera utzi dituztela maiz. Horrek zuzenean eragin die elkarreentako haur askori, ohiko kontsultak galdu dituztelako. Horien ordez, telematikoki bilakatu dituzte zenbait kontsulta. Baina ez da nahikoa izan, familien ustetan: «Familia askok esan dute terapia kontuetan ger-

tutasuna oso garrantzitsua dela, eta gertutasun hori ez izateak terapeutekiko konfiantza galtzea ekarri duela».

Izurriak «beldurra» nabarmen areagotu duela esan du Manterolak. Berez, gaztetxoaren artean, ez da oso erasokorra izaten COVID-19a, baina Bizipoza elkarteak haur eta nerabe askok arrisku faktoreak dituzte, eta egoerak nabarmen izutu ditu sendiak. Gainera, ez dituzte lehenetsi txertatarako, maiz eskuekin egin duten arren.

Mesfidantzak

Sentitu duten zaurgarritasunak segurtasuna bilatzeko beharra areagotu die familia horiei, eta, bide horretan, sarri gizartearen gaitzespena sumatu dutela esan du Manterolak: dela osasun arazoren batengatik maskara ez janzteko hautua egin dutelako, dela konfinamendu garaian kalean ateratzeko baimen berezia zutelako... Jendearen errezeloa pa-



Terapian, gertutasuna oso garrantzitsua da, eta hori ez izateak terapeutekiko konfiantza galtzea ekarri du»

Peio Manterola
Bizipozako kidea

rez pare sentitu dute maiz. «Mesfidantza handia nabaritu dute familioi. Diskriminazio positibo hori ikusita, gure jarrera ez da ona izan; gure eskubideak urratu dituzte, baina ez gara ohartzen bestearen eskubideak ez ezik beren osasuna ere urratu dela», azaldu du Manterolak.

Pentsa liteke osasungintzakoa dela gurasoek nabaritu duten gabezia nagusia, elkarreentako haur

askok maiz joan behar izaten baitute ospitalera. Baina ez. Gabezia handiena, edo behintzat eguneroko martxan eragin handiena duena hezkuntzan nabaritu dute. Uste dute ikastetxeak itxi eta hezkuntza formala ordenagailuen bidez emateak haur asko atzean utzi dituela. Izan ere, haur eta nerabe askok laguntza berezia izaten dute ikastetxeetan, eta, birusaren ondorioz, bertan beheregeratu dira zerbitzu asko. Arlo horretan baliabide falta nabaria kritikatu badute ere, kezka beste nonbait ere badute gurasoek. «Hezkuntzaren funtzioa ez da akademikoa soilik», gogoratu du Manterolak. Gizarteratzeko, harremanak lantzeko, ezinbestekoa da eskolako martxa, eta gabeziak ikusi dituzte hor ere: «Autismoa eta harremanetarako arazoak dituztenentzat, adibidez, oso garrantzitsua da gertuko harremanak eustea: horretarako zailtasunak dituzte, eta, konfinamendua dela eta, asko galdu dute hori. Atzerapauso bat egon da, eta lehen baino okerrago daudela diote».

Izurriak kalte egin dio elkarrean martxa onari ere. Ezin izan dute aurreko ekintzarik egin, eta, horrekin batera, kideei zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak duten finantzaketa murriztu egin da, baita boluntario kopurua ere. Zenbait familiak hori erasaltu dute, erakundeetatik jasotako laguntzak jaitzi direla, zenbait kasutan desagertzeraino. Baina, lokatz horren guztiaren artean, bide bat zabaldu dutela uste dute, eta erakundeetan entzun dituztela, erantzunik jaso ez badute ere. Eta horretan jarraituko dute, gizartearen eragiten eta erakundeetako presioa egin, sorbalda gainean duten harria ez dadin izan hain astuna eta ez daitezkeen gehiago lokatu.



JON URBE / FOKU

Noemi Uribe. Haren alabak fibrosi kistikoa du, eta, azkenaldian osasunez okerrago dabilenez, eskolak etxean hartu behar ditu, lagunengandik urrun eta COVID-19aren beldur.

«Alaba kutsatzea oso kaltegarria litzateke»

M. Ortega Zubiate

Nik berez ospitalean egiten dut lan, baina iaizko abuztutik ez naiz lanera joan, nire alabaren gaixotasuna dela eta. Ezin naiz arriskatu». Izan ere, Noemi Uribe Arnasako kidearen (Ondarroa, Bizkaia, 1971) alabak fibrosi kistikoa du, eta, birikiei larriki eragiten dien gaitza izaki, COVID-19a oso gaitz arriskutsua da harentzat.

Azken bi urteak ez dira errazak izan Uriberen etxean. 15 urteko alaba hamaika aldiz ospitaleratu dute iaztik: gaitza erasaten ari zaio. Konfinamendu aurretik egon zen ospitalean, eta etxera bidali zuten, pandemia ez zela egin eta gutxira, bertan behera utzi zizkioten kontsultak. «Baina nik esaten nien alaba ez zegoela ondo: nabaritzen zitzaion. Eta bertan ospitaleratu zuten», gogoratu Uribek. Pandemia batean izan zen.

Beraz, ama-alabek ospitaleko gelan bizi izan zuten konfinamenduaren zati bat. «Konfinamenduaren konfinamendua» izan zuten Gurutzetako Ospitalean (Barakaldo, Bizkaia). Eta gela horretatik jarraitu zuen ikastola-

ko martxa ere. «Ahal zuenean konektatzen zen Internet bidezko eskolatera, ondo bazeagoen. Baina ez zitzaion erraza izan bere egoeran eskolak jarraitzen egotea».

Aurtengo ikasturtean, ikaskideak eskolan egon badira ere, Uriberen alabak etxean jarraitu du. Etxean hartu ditu eskolak, kutsatzeko arriskua murrizteko. Amak badaki segurtasun protokoloak betetzen direla ikastetxeetan, baina ezartzen diren «neurri orokorre» zirrikituren bat izan dezaketela uste du, eta alabak ezin du arriskurik hartu: «Une honetan, alabak COVID-19a hartzea oso kaltegarria izango litzateke». Aurtengo bigarren hiruhileko azterketak ospitalean egin ditu, etxeko irakasleek ikastolakoekin elkarlanean prestatuta.

Horrek eragina du, ezinbestean, haren sozializatzeko eran. Arriskuak beldurrari bide egin dio, eta jende askorekin ez egoten saiatzen direla dio Uribek. Alaba lagunen batekin ateratzen da tardeka, baina, talde handiagoak direnean, edo leku itxiretan batera joatea proposatzen diotenean, ezezkola ematen du. «Lagunekin egoteko gogo badu, baina beldur da, era berean».